

Jose Ignazio Ansorena

Denboralea eta txalupa

Donostiako kaian, azken denboralearen ondoren, jakin nuen ekaitzetan noiz-behinka kai barruan ustez ondo lotuta dauden txalupa batzuk *desagertu* egiten direla. Euriak txalupa urez bete, pisua-
ren eraginez lokarriak puskatu eta hondoratu ostean, azpiko korrante indartsu batek itsas handira eramaten ditu. Han, txikituta, betirako desagertzen dira.

Euskaltzaleen artean astindua sentitu da PSEk hitzarmena sinatu duelako PPrekin eta Euskadiko lehendakaritza lortu delako. Denborale politiko honek abertzaletasunaren txalupa piskana desagertuz joatea lortuko al du?

Euskaltzale-abertzale sentitzen garen gehienok uste dut horrelaxe, hurrenez hurren, dugula gogo. Euskaltzale aurrenik, ondorioz abertzale. Badira noski euskaltzale izanik abertzale ez direnak, eta abertzale aitortzen diren baina euskaltzaletik ia ezer ez duten ugari.

Laburbilduz, euskaltzale abertzaleok uste dugu euskal kultura lasai, garapen normalizatuan bizi dadin estatu independente baten beharra dugula. Teoria hutsean ez da beharrezkoa. Baina urteetako jardunak ere zerbait irakasten du. Frantzia eta Espainiako estatuetan sakonki erroturik dagoen kultura politikoak ez du beste aukerarik ematen.

Horraino nire uste xumea. Ez nuke inor akabatuko kontrakoa irizten diolako, ezta zaplazteko txiki bat emango ere. Baina funtsik ez duela sinestarazteko, dugun eskarmentuarekin, lan handiak egin beharko lituzkete abertzale ez diren horiek. Ez zait iruditzen, ordea, oraingoz –itxurakeriak kenduta– lanean hasteko asmorik dutenik. Erraturik izango ahal naiz!

* * *

Abertzaletasunak zer ekarri dio herri honi azken ehun urteetan? Inork sinesten baditu Madrildik etortzen diren mezuak, ezer txukunik ez. Bereziki aipagarria da hainbat intelektualek egindako lan eskerga –ondo ordaindua noski, horretarako baitaude *Fun-*



DANI BLANCO

dazioak, Institutuak eta hainbat hedabide–nazionalismoa berez, era intrinsekoan, gaizto maltzurra den sineskeria zabaltzeko. Zaku berean sartuta diren eta izan diren nazionalismo guztiak. Sozialismo edo liberalismo guztiak ere poltsa berean sartuz gero, maltzurkeriaren erpineraino iritsiko ginatekeela ahaztu egin zaie jakina.

Nik, aldiz, uste dut, oro har, euskal abertzaletasunak mesede handiak ekarri dizkiola gure gizarteari askatasunean bizitzeko bidean. Akatsak ere izan dituela aitortuta. Geurean, beste hainbatetan bezala, fanatismoa sortzen utzi dugu.

* * *

Gure txalupari zerbait gertatu zaio. Ustez ondo lotuta, baina ez hainbeste? Toletak ustelduta? Euri jasaz babesteko estalperik jarri ez? Edo besterik gabe, gauez etorritako gaizkileak lokarriak askatu al ditu? Itsas handira iritsi aurretik gauza izango al gara berriro azaleratzeko? Agian ez du merezi. Txalupa berriak jarri dituzte salgai, itxura berrizaleagoa dutenak eta itsasoan arin-arin ibiltzen direnak. Erosle berrizaleak sortuko dira nonahi. Guk ere gure merkantzia zaharra berritu beharko dugu eta bildutako zama astunak gainetik kendu. Hortxe dago koska: zein da benetako zama?

Alderdi ez abertzaleen nagusiak gogaitu egin dira gurekin. Gehiegi eman diguten sentsazioa dute. Horixe baitago beren usteen oinarrian: eman egiten dizkigutela hainbat eskubide. Euskaldun abertzaleok, ordea, asezinak garela eta ez ditugula behar bezala eskertzen, exijitzen jarraitzen dugula. Horregatik gehiegikeriak konpontzen hasteko garaia heldu dela. Gauzak beren puntuan kokatzekoa. Horretan PP eta PSE azkar batean jarri dira ados, *aurrerazale* omen den partiduko ordezkariak eta, *aurrerazaleen* hitzetan, *alderdirik atzerakoienekoak*. Alderdi abertzaleak ez bezala. Disimulatu egingo dute ahalik eta gehien, PSEk bereziki, baina adi egon.

“Gezurra esan nuen Getarian, ni baino lehenago zen atarian”. Esaera zaharra. ■

Euskal abertzaletasunak
mesede handiak ekarri dizkio
gure gizarteari askatasunean
bizitzeko bidean.
Akatsak ere izan dituela aitortuta.
Geurean, beste hainbatetan bezala,
fanatismoa sortzen utzi dugu